

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak webgune batean bildu ditu 2011ko San Fermin jaietan eskainiko dituen zerbitzu guztiak

Jaietan eta entzierroetan emandako arretaren berri emango du egunero, baita informazio turistikoa, berriak, Zezenaren Azokako ganaduaren pisaketak, larrialdietarako telefonoa eta segurtasunerako antolaketa ere

Martes, 28 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaur, 2011ko San Fermin jaietan eskainiko dituen zerbitzu guztiak biltzen dituen [webgunea](#) argitaratu du, iaz egin zuen bezala. Webgunea [Foru Gobernuaren webgune nagusiaren](#) bidez ikusi ahal izango da eta uztailaren 15era arte egongo da ikusgai.



Web orriak hauek eskainiko ditu: Foru Gobernuak jaiekin lotuta burutzen dituen jardueri buruzko informazioa (Sanferminetako berriak), hedabideentzako arreta ("San Fermin" Nazioarteko Prentsa Bulegoaren webgunea, Nafarroako Kazetarien Elkarteak kudeatu eta Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko udalak babesten dutena), Turismoaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen zerbitzu turistikoak edo Foruzaingoak emandako 2011ko San Ferminetako Zezenaren Azokako ganaduen lehorreratze eta pisatze aktak.

Horrez gain, Sanferminetan Iruñean eta eskualdean erabili ahal izango diren zerbitzuak eta ordutegiak azaltzen dira, Osasun Departamentuak eskainita; departamentu horrek Nafarroako Ospitale Guneko larrialdi zerbitzuek Sanferminetako entzierroetan zauritzen diren korrikalariei emandako arretari buruzko datuak ere emango ditu; Sanfermin jaietarako larrialdi telefonoa agertzen da, urteko gainerako egunetakoa, polizia eta osasun taldeak, suhiltzaileak edo babes zibileko beste baliabide batzuk mobilizatzea eskatzen duen edozein gorabeheratarako; eta jaietako segurtasun antolaketa azaltzen da (Barneko Zuzendaritza Nagusiaren informazioa Foruzaingoaren eta Nafarroako Larrialdi Agentziaren antolaketa bereziari buruz, lapurretak eta ebasketak saihesteko gomendioak eta Foruzaingoaren Salaketen Bulego Birtualerako sarrera zuzena).

Webgunea euskaraz, ingelesez eta frantsesez ikusi ahal izango da.